

CONCOURS DE RECRUTEMENT DE PROFESSEURS DES ECOLES

**« Concours Externe Spécial »
« Second Concours Interne Spécial »**

Épreuve écrite
BASQUE

Durée : 3 H - Coefficient : 1

L'usage des calculatrices et du dictionnaire est interdit.

Ce sujet comporte 4 pages numérotées de 1/4 à 4/4.
Dès que ce sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.

'Literaturarekin bakarrik ikasten dena' manifestua aurkeztu dute laurogeitik gora idazlek

[...]

Laurogeitik gora idazlek izenpetu dute *Literaturarekin bakarrik ikasten dena* manifestua. Meettok fundazioak aurkeztu du —izen bereko argitaletxetik sortua da—, eta helburu nagusia irakurzaletasunari «prestigioa ematea» da; baita irakurtzea bera sustatzea ere. Ramon Etxebeste Meettokeko kidearen esanetan, dokumentua «abiapuntu bat besterik ez da»: gerora etorriko diren ekitaldi batzuen oinarria. «Garrantzitsuena ez da dozenaka idazlek sinatu duten agiria, haren bidez eta ondorioz etorriko diren aukerak baizik», adierazi du. «Ekimen ez oso konbentzionalak beharko ditugu».

Manifestuan diotenez, «garai nahasiotan», literaturak koordinatu batzuk ematen ditu beti. «Anne Frankek oso garbi esan zuen: 'Pertsona askeak nekez jabetuko dira inoiz liburuek zer esanahi duten giltzapean bizi garenontzat'. Ispilu aurrean jarri eta galdera egiten ditugu literaturak: 'Aske al gara?'».

Literaturak «mundu guztiari irekita» egon behar duela nabarmendu dute sinatzaileek, «inolako balaztarik gabe». Izan ere, haien iritziz, literaturak «esnatu eta astindu» egiten du pertsona, haren gogoa piztu. «Bakarrik irakurtzen dugu, baina ez gaude bakarrik irakurtzen dugunean. Liburuan irekitzen zaizkigun garai eta pertsonaietara lotuta gaude, fikziozko pertsonaietan lur hartzen dugu, bidaiatik itzultzean ezaugarri berriak iradokitze».

Sinatzaileen iritziz, irakurketak «munduaren zabaltasunaren eta aniztasunaren zantzuak» utziko ditu irakurleengan. «Irakurritakoa lagunekin, ezagunekin, ikaskideekin, irakurketa taldeko kideekin eta sare sozialetan partekatzeak liburuak adina plazer edo gehiago emango digu: liburuei buruz hitz egitea liburuak berridazteko modu bat da. Eta literaturaren historia irakurketaren historia da; erreketak publikoetatik, zentsuratik eta gure gailu elektronikoen hots eta ardailatik harago doa».

Literaturaren inguruan dabilzanak «asko» ez badira ere, «ondo artikulatutako» ekosistema bat osatzen dutela azpimarratu dute sinatzaileek: «Irakurleak, idazleak, itzultzaileak, editoreak, literatur kritikariak, liburu saltzaileak, liburuazainak... literaturak batzen gaitu». Horregatik sendotu eta prestigiatu nahi dute sare hori, liburuaren balioa aldarrikatzeko. «Literaturak erakusten diguna literatura irakurritz baino ezin delako ikasi. Literaturak denoi dagozkigun gauzez hitz egiten baitu: kemenaz, beldurraz, adiskidetasunaz, heriotzaz, maitasunaz, elkartasunaz».

Manifestuan diotenez, irakurtzen duenak badaki zergatik irakurtzen duen. «Irakurtzen ez duten horietakoa bazara, zure arrazoiak izango dituzu. Edozelan ere, zaude lasai. Literaturaz arduratzen ez bazara ere, literatura beti arduratuko da zutaz. Hori ere liburuei esker ikasi dugu».

Mikel Lizarralde
Berria. eus
2023ko ekainak 27
(moldatua)

PARTIE 1 : COMMENTAIRE GUIDÉ EN LANGUE RÉGIONALE (10pts)

1. Piste 1 :

Manifestu baten beharra.

2. Piste 2 :

Literatura : norbanakoa eta gizartea

PARTIE 2 : TRADUCTION /QUESTIONS DE GRAMMAIRE (5pts)

3. Traduction

Traduire en français l'extrait de la ligne1 « Laurogetik gora » à la ligne 7 « beharko ditugu » d'une partie issue du texte du commentaire.

Laurogeitik gora idazlek izenpetu dute *Literaturarekin bakarrik ikasten dena* manifestua. Meettok fundazioak aurkeztu du —izen bereko argitaletxetik sortua da—, eta helburu nagusia irakurzaletasunari «prestigioa ematea» da; baita irakurtzea bera sustatzea ere. Ramon Etxebeste Meettokeko kidearen esanetan, dokumentua «abiapuntu bat besterik ez da»: gerora etorriko diren ekitaldi batzuen oinarria. «Garrantzitsuena ez da dozenaka idazlek sinatu duten agiria, haren bidez eta ondorioz etorriko diren aukerak baizik», adierazi du. «Ekimen ez oso konbentzionalak beharko ditugu».

4. Questions de Grammaire

a) Laurogeitik gora idazlek izenpetu dute (lerroa 1)

b) Ramon Etxebeste Meettokeko kidearen esanetan (lerroa 4)

c) Garrantzitsuena ez da dozenaka idazlek sinatu duten agiria (lerroak 5 et 6)

PARTIE 3 : COMMENTAIRE D'UN DOCUMENT PÉDAGOGIQUE (5pts)

Consigne :

Dokumentua aztertu eta kritikatu ondoan, tematika bat eta helburu pedagogiko bat(zuk) proposatuko dituzu, dokumentuaren koherentzia oinarrituz.

Liburuak zertarako ?

Liburuak zertarako?

Ni nor naizen konturatzeko
besteak nolakoak diren jakiteko
hodeiei izen bat jartzeko

5 itsasoari izena aldatzeko

Liburuak zertarako?

Bihotzeko mugak ezagutzeko
betirako lagunak egiteko
inoiz bakarrik ez sentitzeko

10 libreagoa izateko

Mariasun Landa -Liburuak zertarako ? -
1990, armiarma.eus



Ikusi Mikusi- eke.eus